



Ayuntamiento de  
**Pamplona**  
Iruñeko Udala

Jaun/andre agurgarria:

Iruña hiriaren izenean zuregana jotzen dugu zuzentzen duzun bandak hautagaitza aurkeztu eta Iruñeko Nazioarteko Banda Jaialdian parte hartu dezan, *IFOBand* jaialdian, alegia. 2019ko ekainaren 12tik 16ra egingo da, Iruñeko La Pamplonesa Musika Bandaren mendeurrenarekin batera.

Nazioarteko Banda Jaialdia ez da ekitaldi lehiakorra, eta kontzertuak egingo dira lehen mailako tokietan, hala nola Gayarre antzokian eta Baluarte Auditoriumean, bai eta atari zabaleko agertokietan ere, Udaletxe plazan zein Gazteluko plazan. Aukera zabala egongo da munduko beste toki batzuetako bandekin biltzeko, nazioarteko zuzendari zein konpositore ospetsuen lantegietan parte hartzeko, eta Nafarroako abegi onaz gozatzeko.

1919an sortua, La Pamplonesa Iruñeko udal musika banda da, eta hiriko jaialdi ofizial guztietan egiteko garrantzitsua du. Halaber, urte osoan zehar hiriko antzoki eta auditorioetan programa aktibo bat gauzatzen du.

Urtero hiriko egun berezietako jardueretan parte hartzen du, hala nola Eguberrietan, Aste Santuan, eta noski, haren musika ordezkarekin giroten ditu hiriko kaleak mundu osoan ezagunak diren sanferminetan ere.

Iruña nazioartean ospetsua bada ere Ernest Hemingwayren txundimenari eta haren eleberrietan egiten duen entzierroen deskribapen zirrargarriei esker, gainerakoan hiri lasaia da, eta sarritan definitzeko erabili ohi den eraldia baino askoz gehiago. Harresien artean mende luzeetako historia gordetzen duen hiri bat da, eta harresi horiek dira, hain zuzen ere, gaur egun, ondare aktiborik baliotsuenetako bat. Erdigune historikoko kale bihurgunetsuetan altxor arkitektonikoak daude, plaza ederrak eta merkataritza aktibo bat, baita kafetegi eta jatetxeak ere, non tokiko gastronomia dastatu ahal den, zalantzarik gabe, beste erakarguneetako bat.

Zinez espero dut Iruñeko *IFOBand 2019* jaialdira batzeko aukera aintzat hartzea. Guretzat plazera izango da zuek hemen izatea.

Aukera honetaz baliaturik, agur bero bat bidaltzen dizuet zuri eta zure bandari.

Adeitasunez,

Joseba Asiron Saez  
Iruñeko Alkatea